

EZAGUTU ENERGIA EFIZIENTZIA ARAUDIAREN DETAILA GUZTIAK

Azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretuak Kanpoaldeko argiteria-instalazioen energia-efizientziaren araudia oneste du, baita jarraibide osagarriak ere.

kW 1 baino gehiagoko potentzia instalatuko kanpoaldeko argiteria-instalazioei aplika dakieke, berriak izan ala ez, garrantzizko zabalkuntza edo aldaketarik jasan behar badute (instalatutako luminarien potentziaren %50 baino gehiago).

Bide-argiteria espezifiko eta ornamental instalazioetan argiztapen-maila murriztea eskatzen du, baita 5 kW baino gehiagoko seinale eta argi-iragarkietan ere, (segurtasun-arrazoiak direla eta gomendagarria ez den kasuetan salbu). Honako sistemei aplika dakieke:

- ▶ Indukzio motako serie balastoak potentzia maila bikoitzerako.
- ▶ Linea-buruko erregulagailu-egonkorgailuak.
- ▶ Potentzia erregulagarriko balasto elektronikoak.

Erregulazio-sistemak igorritako fluxua zerbitzu-balio normalaren %50 arte murriztea ahalbidetu beharko du, argiztapen-mailen uniformetasuna mantenduz.